



MUNCH

Mirande eta Nietzsche



Nietzscheren gurean izan dituen eraginaren gaia atera bezain pronto, Jon Miranderen izena aipatu behar berehalak. Kristautasunaren lehenengo kritikoa izan zen euskaraz, 36ko gerra ondoren biolentzia predikatu zuen lehena ere izan zen eta paganismo zaharra berpiztu nahi izan zuen. Filosofia berri bat aurkeztu zuen Mirandek, eta Joxe Azurmendi filosofoa da gai hori gehien jorratu duena, *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan* (Susa, 1989) saiakera adibide garbiena. Txomin Peillenek *Idazlea eta Giza Jakintza* lanean emandako esaldia jaso zuen Azurmendik lan horri hasiera emateko: «Zoritxarrez, baliman galdu egin da Jonek Nietzsche buruz idatzitako berrogeita hamar orrialdeko saioa: *Giza gaindikoa Nietzscheren arauera*». Datu horrek ematen du, hain zuzen ere, Mirandek Nietzscheren lanari eskaini zion arretaren neurria, Azurmendik bere liburuan idatzi zuenez. «Halere, sekula ez zuen bere saioa argitara eman, ezta zatika ere, eta dirudienek saio hura, galdua ezezik, erre eta kiskalia da honez gero». Nietzscheren arabera giza gaindikoaren doktrina bat ez omen dio nabari Azurmendik Miranderi. Baina, Nietzscherena bezalaxe, «Miranderen filosofia guztia funtsean antropologia bat da, antimetafisika bat da, hots, giza jakintza». Jakintza horren iturriak bururatzeko Nietzscheren modura aritu zen, gainera, Mirande, diferentzia garrantzizko batekin: «Nietzscheren beti ere psikologia erabiliko duen bezala, Mirandek Parapsikologia erabiliko du». ■

nerantz doan bidea amaigabea da. Dagoena, gertatu, gertatzen eta gertatuko dena, nahi bezain kontagaitza izanik ere, mugatua bada, nahitaez behar du aldi infinituz gertatua izan. Hori onartzeak, jarriera bi ekar ditzake ondorioz: etsimendua: geroa iragana lakoa izango denez, ez dut ezer egingo, ez baitago zereginik, datorrena datorrela eta kito.

Bada alabaina beste aukera bat, Nietzscherena hain zuzen, nahia ere sakratu bilakatzen duena. Nahia gainera ohiko ikuspuntuaren arabera, etorkizunerantz nahi dezaket, baina iragana aldagaitza da, alferrik da gertaturikoa asmatu nahi izatea. Lehenaren uz-

tarria, gizakiaren borondatearen gabezia eta mugarik mingarriena litzateke. Ordea, betiereko itzulera bizitzaren alde ulertuz gero, iragana ere ederki asma nezake: nolakoa datorren unea, halakoa izango baita iraganean behin eta berriro. Hara Nietzscheren agindu eta erantzukizun berria: asma ezazu hurrengo unea eta une oro etengabe eta beti itzultzea nahi izan dezazun. Horrela, ohiko denbora-moldeak giza nahiari jarri uzta haitsi egiten da, eta askatasun estrainio bat da ernetzen, biziki enigmatiko eta arriskutsua, iragan-orain-gero mugariak dantzan jartzen baititu, betiko aingurak kolokan.

P

ero no sé euskera —esaten ziguten lehen apal-apal, euskaraz hasten ginenean. Orain, batzuek (askok?)

«¿Puedes hablar castellano, por favor?» erantzuten dute, guk «Egunon» hitza bukatu orduko. Eta, azkeneko «por favor» horren doinua ez da izaten mesedea eskatzen duenarena, kokoteraino dagoenarena baizik.

Uda alferra omen da, baina ikasturte akabua ere bada eta noizbait ekin beharko zaio, beranduegi ez bada,

'kontzientzi azterketa' edo beste batzuek

LOURDES OÑEDERRA

HIZKUNTZALARIA

'autokritika' deitu zuten horri. Ez naiz ari lortu ez denaz, eman ez

digutenaz:

Perdona

emanari, lortuari atera (ez) zaion

etekinaz baizik. Izan

ere, ez dirudi egoerak

hobera egingo duenik (alderdi nazionalistak hasi dira botere esparrua galtzen). Optimista jarrita, presta gaitzen txarrera egin ez dezan.

Zerbait gaizki egin dugu euskararekin. Kontra zeudenak ez daude alde. Alde ez zeudenak ez dira hurbildu. Alde zeuden askok ez dute ikasi. Ikasi zuten batzuek ahaztu egin dute. Zekiten zenbaiten ez dute egiten... Euskara ez da normaldu. Gizartean axola duten gauzak ez dira euskaraz gertatzen-esaten-idazten.

Kontua ez baita bakarrik zenbat garen, nor garen baizik. Hizkuntza batek osasuntsu iraun dezake hiltun gutxiarekin komunikazio-beharrek betetzen baditu. Bost axola Jaurilaritzako paper satinatuetako estatistika triunfalistek. Bost axola horrek, gure ikasleei euskara ez bazaie «gustatzen», gazteleraz erosoago badabilta pasiloetan... Ez dago euskararen beharrik, batez ere ez dago euskararen gogorik.

Zer egin dugu ofizialtasunarekin, elebitasunarekin, diru laguntzekin, diru bilketa masiboekin? Harrotu, puztu eta dena konpondu balitz bezala jokatu. Euskara geure buruak sendotzeko erabili dugu, diferentziak nabarmentzeko.

Ez dugu jakin hiltunak seduzitzen. Ez didate balio umeek lanpostua izan dezaten badaezpada matrikulatzen dituzten horiek, are gutxiago politikoki beldurtuek, ez batzuek ez besteek ez dute hizkuntza bazkatuko eta handitzen ez den hizkuntza txikitu egiten da eta, urteak gorabehera, hil.

Hizkuntz heriotzazko ikerketan bada 'aro formulaikoa' deitua, hizkuntzak salbaziorik ez dueneko garaia etiketa: esamolde fosilduak, zenbait kantu eta errezu, besterik ez da gelditzen. Aurtengo udan, erabilera sinboliko horiena datorrit burura: txoko bat udako ikastaroetan (batik bat euskarari buruz aritzeko), jazz emanaldien aurkezpenetako diskurtsu elebiduna eta hondartzako haurrekikoa... Exajeratzen ari naiz. Ados. Baina oso-oso gutxi ari naiz exajeratzen.